

## Lan mundua zure liburutegian. Krisiaren monotemari temati helduz

Pablo AZPIROZ IRIBAS eta José Antonio GÓMEZ MANRIQUE\*



**L**an mundua ardatz hartuta Sanduzelaiko Liburutegi Publikoan hainbat ekimen burutu ditugu aurten. Denak bi krisitan izan zuen abiapuntua. Batetik, sufritzen ari garen krisi ekonomiko latzean —begiratzen diozuna begiratzen diozula, hortxe aurrean duzu bere ondorioetako bat—. Bestetik, lehiaketatto batek sorrazten digun krisian; hau da, Nafarroako Liburutegien Sareak irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko antolatzen duen lehiaketa —urtero berdin: *zer egin? Besteek oso gauza majoak antolatzen dituzte? Zergatik jartzen gaituzte honelako atakan lehiakortasuna sustatuz gure artean?*—.

Honela bada, urteroko puntu berean harrapatuta, bi aukera ikusten genituen lehiaketaren zeratik itxuroso ateratzeko: zer edo zer kontratatu, hau da, nolabaiteko *outsourcing*-az baliatzea eta ikusi arte —horixe izan da gure aterabidea bestee-tan—, ala etxean bertan egositako zerbait proposatzea eta itxaron zer zekarren atrebentziak.

97

Bigarren aukerari heldu genion. Izan ere, neka-neka eginda geunden ipuin kontaketak antolatzeaz. Gure irudikoz, eta betiere gure kasura mugaturik, horrelako ekitaldietara hurbiltzen diren pertsonak, bai haurrak bai helduak, gero ez dira etortzen bibliotekara. Beraiek ez dute interesik bertan dauden materialetan zein zerbitzuetan. Beraz, ezagutu ezagutzen gaituzte —alderdi hori lorturik dugu behinik behin—, baina eskaintzen diegunak ez du nahikoa baliorik beraientzat oraingoz —joera hori aldatzeko zer egin genezakeen beste debate bat izanen litzateke—. Nolanahi ere, ukaezina da ipuin kontaketei diegun ezinikusia, edo zati handi batean gutxienez, gure instalazioen desegokitasunean datzala —badakigu bibliotekariarkitektoek oso gogoko dituztela gune gardenak edo diafanoak, baina ezin nabariagoa da beraiek ez dutela gero lanik egiten beren haragizko diseinuetan. Bestela...—.

Beraz, gure sukaldearen alde egitea erabaki genuen. Hasiera batean, zer egin ez genekiela, hainbat ideia eta formatu izan genuen gogoan. Hala ere, azkenean ados jarri ginen lanaren

\* Iruñea-Sanduzelaiko Liburutegi Publikoa

helburuarekin: liburutegiaren funtsak zabaltzeko zerbait egiten saiatu behar ginen. Gauzak honela, gure lehenbiziko errezeta zenez, pentsatu genuen egokiena izango litzatekeela beste sukaldereen bateko plater bat moldatzea geure gustura; osagaiak aldatuz baina egiteko prozedura eta aurkezpena mantenduz, alegia. Hau dena kontuan hartuta, produktuaren formatua hautatzea aise adostu genuen: liburutegiko gai baten gaineko dokumentu-bilduma egin behar genuen liburuxka formatuan. Hala eta guztiz ere, ondoko paragrafoetan *gida* hitza agertuko den arren liburuxka izendatzeko, berez ez da gida bat —ez dugu inongo asmorik inori aholkurik emateko—. Gure asmo bakarra gai bati buruzko funtsak hedatzea izan da.

Formatua behin finkatuta, gaia zehaztea zen ondorengo pausua. Berriz ere, bi aukera nagusi ortzemugan: gai klasiko bat jorratzea —hau da, osagaiak ere fusilatzea—, ala egungo gai bat egokitu gure nahira eta abagunearen indarrak aprobetxatzea. Gure izaera “abangoardista” dela eta, honetan ere zerbait berriari ekin nahi genion, eta horrexegatik, komunikabideen izenburuen artean hasi ginen usnaka ea gaurkotasunezko gai mamitsurik topatzen ote genuen. Jakina denez, A (H1N1) gripearekin batera, Cristiano Ronaldo eta krisia izan ditugu bidaide azken luze honetan. Lehenengoari dagokionean, deus gutxi esateko: gaia sobera berria zen materialik izateko gure bildumetan. Hortaz, gripearena albo batera utzita eta dikotomia berriari nondik heldu ez genekiela, konturatu ginen krisi ekonomikoan Florentinok ere erantzukizun handixkoa zuela. Beraz, Ronaldo gizajoaren kandidaturari muzin eginez, krisiaren gaiari bidea ematea erabaki genuen. Hori bai, ez krisi osoa aintzat hartuta, baizik eta Sanduzelaiko bibliotekako erabiltzaile orori kezkatzen zaion alderdiari soilik erreparatuta: lan alorrarena.

98

Gaia eta formatua. Otsailaren hasiera zen eta hasten ahal ginen Udalak eskatutako ekitaldien programari forma ematen. Lehenengo inpresioa: *gidarekin bakarrik ez al da moztegi geldituko?* Beste zer edo zer asmatu behar genuen; bestela triste xamar geratzen zen gure proposamena. Otsailaren hondarrerako —zenbait aurrekontu eskatu eta gero—, gure programa-proposamena aurkeztu genien Udalekoei. Bertan, lan munduaren inguruko dokumentuen gida jasotzeaz gain, gai bereko hainbat film proiektatzeko nahia eta zenbait egileren hitzaldiak izateko asmoa ere agertzen ziren. Hau guztia onetsi ziguten.

Gauzak honela, gidarenari lan nekosoak baina erraza irizten genion. Hau dela eta, erabaki genuen lehen-lehenik hoberena izango zela beste ekitaldiena prestatzea —eskarmentu gutxiagokoak ginen horretan—. Gainera, gure instalazioen exkaxarena kontuan hartuta, pentsatu genuen agian Civivoxeko Areto Nagusian egin ahalko genituzkeela horietako batzuk, eta bidenabar, zirritu bat irekitzen ahal genuela gero beraiekin elkarlanean aritzeko aurrerantzean. Horretarako, Sedenakoengana —Civivoxeko kudeaketa daraman enpresa— joan baino lehen, Udalekoei helarazi genien gure asmoa beren babesak bilatuz: filmak Civivoxen proiektatzeko gogo genuen, Sedenako zuzendaritzarekin elkarlanean egingo genukeela ziklo bat non emango ziren gure gidako hainbat pelikula, eta Civivoxen kontura joango zela filmak proiektatzeko eskubideena.

Udalekoei oniritzia lorturik, Civivoxeko arduradunarengana jo genuen. Berari azaldu genion orduko, jakinarazi zigun bazuela gure asmoaren berri eta prest zeudela gurekin batera aritzeko. Honela bada, negoziazio prozesu baten ostean, adostu genuen proiektzioen zikloa urrian

hastea —espero genuen ordurako gida egina izatea—; zikloak “Cine y mundo laboral” izango zuen izena —gauza jakina da euskara ez dela ongi etorria Civivoxetan—; beraiek ordainduko lituzkete proiektatzeko eskubideak; eta guk proposatutako film multzo batetik bost pelikula aukeratu zituzten zikloan emateko: *Tiempos modernos*, *Muerte de un viajante*, *Los lunes al sol*, *El método* eta *Nevando voy*.

Franko pozik emaitzarekin, egileen bisitenean hasi ginen lanean. Egia esateko, aurrekontua aintzat harturik, bi ekitaldi bakarrik programatzen ahal genuen eta horietako bat nahiko aurre-ratua generaman ordurako. Izan ere, *Nevando voy* pelikularen zuzendarietako bat Iruñekoa izaki —Maitena Muruzabal—, hasieratik bertatik iruditu zitzaigun oso egokia izango zela Maitena liburutegira ekartzea, bertan *Nevando voy*ren nondik norakoak azal diezazkigula eta, honen segidan, bere pelikula ikustera igotzea Areto Nagusira. Hortaz, Maitenaren baietza lortu ondoren, bigarren gonbidatu baten bila hasi ginen. Honetan ere, aise egin genuen bat, Patxi Irurzun idazle iruindarra bi libururekin agertzen baitzen gidan. Beraz, Patxiri erakutsi genion asmoa eta proiektua, eta berehala animatu zen gurera etortzera Literatura currelaz aritzera.

Bestalde, denbora aurrera egin ahala, poliki-poliki ari ginen bibliotekako dokumentu egokien erreferentziak biltzen. Lan horretan hasi baino lehen bilaketa-estrategia xedatu genuen:

—Opac-en erremintak baliatuz: bai gure bildumetan arakatzeko, bai kanpoko bildumetan arakatzeko. Gehienbat hauxe ez fikziozko dokumentuak bilatzeko erabili genuen —materien aurkibideen bidez eta argitaratze daten tarteak erabiliz—.

—Liburu-denda teknikoan interneteko katalogoak arakatzuz.

—Interneteko hainbat web gune espezializaturen bilaketa tresnak erabiliz: The Internet Movie Database, Film Affinity, LibraryThing, eta abar.

—Zenbait libururen bibliografiak arakatzuz.

—Interneteko iturri batzutan murgilduz: artikulua, blogak...

Bilaketa-estrategia honetaz gain, beste bide interesgarri batzuk ere ireki genituen dokumentu egokien ehizan; izan ere, zenbait bibliotekako erabiltzaile zein liburu-denda partaide bihurtu baitziren gure proiektuan, eta beraiei esker guri ihes egingo ziguten dokumentu gehiagotara ailegatzea lortu genuen.

Hortaz, erreferentzia zerrenda luze bat genuelarik, lau multzotan banatu genituen hauek: *literatura*, *ez fikziozkoak*, *komikiak* eta *zinema*. Esan beharrik ez dago batez ere lehengo eta azken multzoei zegozkiela erreferentzia gehienak. Beraz, nolabaiteko garrantzi-sailkapena osatu genuen multzo bakoitzerako, zeren gidaren luzera mugatuta baitzegoen aurrekontua-rengatik eta geneukana egokitu beharra genuen dimentsio horietara. Halaber, nahiz eta dokumentu horietarik asko liburutegian eduki, beste hainbeste falta zen. Honela, aurreko guztiak baldintzaturik, estrategia zehatza markatu genuen: lehenik eta behin, egiaztatu genuen bibliotekan geneukana erreferentzia-zerrendaren kontra; gero, jakin genuenean —gutxi gora behera—, zenbat dokumenturen faltan geunden gida osatzeko edo multzoak indartzeko, garrantzi-sailkapenaz baliatu ginen dokumentuak dendei eskatzeko tenorean, eta hauexek ez genituen

batera eskatu, garrantziaren arabera multzoka galdeginez baizik —denok badakigu enkargatzen dugun guztia ez digutela gero lortzen, eta bestaldetik, ez genuen aurrekontu-sail osoa gai bereko dokumentuetan soilik gastatu nahi—.

Udaren hastapenetan eginik genituen erosketa gehienak, artean dokumentu bat edo beste ailegatua ez bazen ere. Iritsia zen diseinuaren momentua. Inprimategikoen txanda heldu aurretik, erreferentzia bakoitzean zein datu agertuko ziren zehaztu beharra zegoen. Honetan ere ez genion deus berririk erakutsi munduari. Liburuetarako agertuko ziren azalaren irudia, lanaren berri labur bat —argitaletxearengandik berarengandik jasota—, egi-lea(k), izenburua, argitaletxea eta orrialde kopurua; bestalde, pelikuletarako karatularen irudiaz gain, azalduko ziren berri labur bat —kasu honetan Film Affinity web gune espezializatutik hartuak—, izenburua, zuzendaria(k), interpreteak, iraupena eta ekoizpenaren urtea nahiz estatua. Honelaxe, erreferentzia bakarren bat bidali genien Ona inprimategikoei ea zer proposatzen ziguten beraiek maketazioaren aldetik. Berehala, oso profesionalak baitira, bi diseinu eredu bidali zizkiguten —kolore, tipografia, eta abar, diferenteekin—, eta gu ohiko moduan, ez bata ez bestea ez genuen aukeratu, baizik eta bietako nahasketa bat iradoki genuela —hain itxura ederra zuten biek!—.

Diseinuarena ere erabakita, hortxe hasi ginen bada dokumentuen berri laburrak biltzen. Plan ederra udara pasatzeko. Opor egunak bukatu zitzaizkigun berri laburrekin batera. Hala eta guztiz ere, beste harritxo bat genuen iraileko bidean: gidaren azala eta aurkezpena. Berrito ere komerik: *zer?, nola?, nondik?* Zorionez —ala zoritxarrez, batek daki—, Carlos Vianako Printzeren leloaz oroitu ginen, *Utrimque roditur*-ez alegia; izan ere, oso lotura zuzena aurkitu genion gidako liburu batean baino gehiagotan irakurri genuenarekin: lanak eta langabeziak gu zehatzen etengabe.

## 100

Metafora hori Munduko nafar guztiei bete-betean egokitzen zitzaielakoan, zer edo zer prestatu genuen horren kontura gida apaintzeko eta, segituan, Onako ongileei bidali genien dena ea urriaren lehenengo asterako lanak argia ikus zezan. Beraiek —ez genuen alderantzizkorik espero—, gure eskaria bete zuten eta zinema zikloa hastearekin bat, artefaktuaren 1000 ale utzi zituzten gure eskuetan. Halaber, gure web gunean ere eskuragarri paratu genuen gidaren bertsio elektronikoa mundu zabalari eskainia-gida, jalgi hadi plazara!

Gerokoa, hau da, banaketarena, imajinazio pixka batekin asmatzen ahal da nola egin zen: guk egin genuen goitik behera —zerbait jakina da boluntarismoa dela bibliotekariaren eritasun profesionaleko bat—. Beraz, kontuak ateratzen hasi ginen: *hauexek Iruñerriko liburutegiendako* —guk eraman—, *hauexek auzoan barna banatzeko* —guk eraman—, *hauexek Civivoxen eta zinema zikloan banatzeko* —Civivoxekoei eman—, *hauexek Sareak bidaltzeko gainerako bibliotekeei* —guk eraman Sarera—, *hauexek Udalekoei emateko* —guk eraman—... Horixe da pobreaken bizitza eta ez kexatu gero! Nahi dugulako egiten baititugu horrelakoak eta okerragoak ere bai. Zer nahi gisatara ere, aitortu beharra dugu —harropuzkeri puntu batekin aitortu ere—, batzuk etxera etorri zaizkigula eskean zenbait ale eramateko asmoz: ESK sindikatuko kide bat hurbildu zitzaigun gida izugarri gustatua omen zitzaie la esanez eta Lanerako Prestakuntza eta Orientabide atalak dituzten Lanbide Heziketa Ikasteetatik ere beren interesa agertu ziguten —azken hauei Ana Bernalek, Hezkuntza Departamentuko Dokumentazio-Zentroko kideak, ezagutarazi zien gure lana—.



Orain, testu hau idazten ari garenean, urriaren erdian gaude eta aste batzuk badaramatzagu ekitaldiekin. Orokorrean, esaten ahal dugu hamarnaka lagunek hartu dutela parte beraietan —hori bai, batez ere pelikuletara animatu egiten da jendea—, eta gidaren 1000 aleetatik 150ren bat gelditzen zaizkigu; hortaz, seguruenera zikloa amaitzerako ez da gidarik geratuko. Honetaz aparte, gidako dokumentu guztiak beren ohiko tokietatik atera genituen eta interes-gune bat osatu genuen beraiekin. Interes-gunea antolatzeko gidaren sailkapen bera erabili genuen: literatura, ez fikziozkoak, komikiak eta zinema —euskarriak batere bereizi gabe—. Orobat, guneari giro alai eman nahian, Udalak zentsuratutako eta ez zentsuratutako egunkarien zenbait komiki-banda paratu genituen aldamenean —noski, bertan agertutako umoreak zerikusi zuzena du lan munduarekin—. Iraupenari dagokionean, 2010 arte izatea aurreikusi dugu —“erabilera handiak” kontrakoa agintzen ez badigu, betiere—.

101

Bukatzeko, lana ebaluatzeko tresnez hitz egin beharko genuke —lan serio eta modernoek hala behar omen dituzte eta—. Alabaina, guk ez dugu horrelakorik garatu —ez adierazlerik ez deus ere—. Izan ere, guk uste baitugu irakurtzeko zaletasuna sustatzeko kanpainak oso bestelakoak izan beharko liratekeela. Estrategia oso bat segitu beharko luketela, eta horretarako berariazko baliabideak ziurtatu behar dira —bai materialak baita giza baliabideak ere—. Guretako gehigarritzko lan-karga suposatu du lan honek, eta oso gustura egin badugu ere, ohartzen gara askoz ere hobeki egin ahalko zela behar den denbora sartu izan bagenu —lehen aipatu bezala, boluntarismorik gabe gidarik ez!, bestela galde itzazue gure etxeetakoei—. Dena dela, ebaluazio moduko zerbait egin egingen dugu —gutxieneko interesa badugu guk ere—. Horretarako, nahiz eta onartu batere zientifiko ez dela, intuizioaz eta esperientziatz baliatuko gara. Bereziki bi esparru ikertuko ditugu hemendik hiru hila-

beteetara: alde batetik, interes-guneko dokumentuen mailegatzearen datuena —kudeatzeko sistematik ateratako datuak alderatu egingo ditugu duela urtebetekoekin—; eta bestetik, pertsonen inguruko alorrena, hau da, zer iruditu zaie erabiltzaileei egin duguna?, zer iruditu zaie Civivoxekoei elkarlana?, ezagunagoak gara auzoan zera honi esker? —inpresio horiek egunez egunekoak eta erabiltzaileekiko harremanek eskainiko dizkigute—.

Gisa honetan, bakoitzak atera ditzala bere kontuak merezi izan duen ala ez jakiteko. Guk ikusten duguna da urte osoko programa egin dugula —urtariletik abendurainokoa—, bere aldeko eta kontrako gauzeekin. Aldekoak: hainbat erabiltzaile eta liburu-dendarekin egin dugun elkarlana; funtsak hedatzeko balio izan duela; Civivoxekoekin agian bide bat ireki dugula; auzoan ezagunxeagoak izango dela biblioteka —taberna batzuetako bezeroek ez zekiten ezta auzoan liburutegirik zegoela ere—; eta gure atseginerako, sormenezko lana izan dela —egunerokotik atera zaigu behinik behin—. Noski, domina guztiek badaukate beren ifrentzu eta kontrako gauzak ere egon badaude: benetako interesik izan ote du jendearentzat?; hori nola jakin gure baliabide gutxien bitartez?; Sobera diru xahutu ote dugu egintza honetan hain juxtu ere krisi latzean jomuga dugunean?

